



**HAL**  
open science

## Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan (1. zatia)

Charles Xarles, C., X. Videgain, Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Charles Xarles, C., X. Videgain, Gotzon Aurrekoetxea. Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan (1. zatia). ASJU Gehigarriak XLIX, Gotzon Aurrekoetxea & Xarles Videgain (eds) - Anuario del Seminario de Filología Vasca, 2004. artxibo-00080500

**HAL Id: artxibo-00080500**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00080500>**

Submitted on 19 Jun 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

HAUR PRODIGOAREN PARABOLA  
IPAR EUSKAL HERRIKO 150 BERTSIOTAN

Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain  
(arg./eds.)

## 1. Aitzin-solasa

Edouard Bourciezek gidatutako “Recueil des Idiomes de la Région de la Gasconne” bildumako euskal testuen ikerketa eta argitalpena aspaldiko asmoa da. Izan ere, urte batzuk joan dira Xarles Videgainek gaia planteatu zidanetik. Testuon bilketa eta argitalpena burutzeko, alabaina, nolabaiteko babes behar genuela iritzirik eginbeharrari ekin zitzaion. Ahaleginak bere fruitua eman zuen 2002. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa-proiektua onartu zuenean. Beraz, ikerketa EHU-k babestutako 1/UPV 0033.130-H-14888/2002 proiektuaren bidez bideratu ahal izan da<sup>1</sup>. Anartean urrats bat baino gehiago emanak zituen Xarles Videgainek mikrofitxetatik paperera bihurturiko testuak makinatuz.

Testuon argitalpena planteatzen genuen gure ikerketa-proiektuan; hots, eskuizkribuaren eta bertsio makinatuaren argitalpena. Mikrofitxetan gordetzen ziren eskuizkribuen digitalizatzea tresneria berezi baten bidez lortu zen. Eskerrak eman behar dizkiegu lerro hauen bidez, alde batetik, Bordeleko Unibertsitateko Bibliotekako arduradunari, hain eskuzabal hartu gintuelako, mikrofitxak eta eskuizkribuak gure eskuetan utziz, eta bestetik Beñat Oihartzabal CNRSeko *Iker-Euskal Ikerketa Zentroko* nagusiari, bere ardurapean dagoen mikrofitxa-irakurgailua erabiltzeko baimena ukanagatik.

Mikrofitxak digitalizatu orduan konturatu ginen, ordea, mikrofitxa andana batek ez zuela gutienezko kalitatea eskaintzen. Honek beste bide bat jorratzera eramán gintuen: jatorrizko eskuizkribuaren argazkiak atera eta digitalizatzea, hain zuzen ere. Berrito baimen berezia eskatu genuen zazpi giltzapean gordetzen ziren bilduma honetako jatorrizko euskal eskuizkribuen argazkiak ateratzeko. Eskariak emaitza ona lortu zuen eta halaxe egin zen, dokumentu guztiak digitalizatuz argazki kamera digital baten bidez.

Aldi berean hasi ziren makinatutako testuen zuzenketak eta hauek amaitu bezain laster testuetako hiztegi eta adiztegiaren hustuketa. Bidean sortzen ziren eragozpenak gaindituz joan ginen apurka-apurka merkatuan diren tresna informatiko eta berariaz ikerketa-proiektu honetarako eraikitako lematizazioa egiteko laguntza-aplikazio baten bidez.

Ikerketa eta testuen prestaketa aurreratuxe zegoelarik, argitalpenaz gogoeta egin ostean bi euskarrítan argitaratzea erabaki genuen: liburuan eta CD formátuan. Liburuan jatorrizko eskuizkribuak izan ezik gainerako guztia argitaratzea erabaki genuen; CD-an

---

<sup>1</sup> Proiektu-kide eta lankide izan ditugu Jose Luis Ormaetxea eta Aitor Iglesias.

eskuizkribu eta guzti. Behin argitalpen mota erabaki ondoren, diru-laguntza bilako saio arrakastatsua egin genuen 2003.eko Euskal Herriko Unibersitateko Ikerketarako Laguntzen Deialdi Orokorrean parte hartuz. Beraz, argitalpen hau Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaren bidez egin ahal izan da.

## 2. Sarrera

Liburu honetan aurkezten ditugun dokumentuak Edouard Bourciez irakasleari zor dizkiogu, E. Bourciez izan baitzen Bordeleko herrialdeko errient guziei manua eman ziena *Haur prodigoa* deitu parabola itzul zezaten herriko bereko mintzairara, hizkuntz hau euskara ala gaskoina izanik. Hori gertatu zen 19. mendeko azken urteetan eta gaur, labor bada labor, Bourciezen bizitza eta obra aipa ditzagun hartze bide du jakintsu horrek.

### 2.1. Edouard Bourciez

Bourciezen bizitzaz A. Viaut CNRS-ko ikerlariaren artikulua baliatuko dugu gehienik (Viaut, 1995). Jatorriz, Bourciez hasteko ez zen batere gaskoina Niort hirian sortu baitzen 1854-an, beraz Saintonge-Poitou herrialdean, hura ez baita gaskoin mintzairaren eremuan sartzen. Irakasle izan zen eta irakaskuntzarako gogoia alarzepean hatzeman zukeen, haren aita jadanik lizeoko historia-irakasle izan baitzuen. Edouard Bourciezen semea ere irakasle ezaguna izan zen haren ondotik.

Haren ofizioko ibilbideak erakusten du emeki-emeki nola aitzinatu zen irakaskuntzaren munduan, ohiko diploma guziak erdietsi zituela bata bestearen ondotik. Lehenik Eskola Normalan (guti edo aski gaurko Irakasle Eskolan) sarturik 1873an, lizentzia eta agregazionea kausitu zituen, gero igorria izan zen Frantziako hainbat lizeotara, eta 1883an sartu zen Bordeleko Unibertsitatean, lehenik laguntzaile gisa, gero *maître de conférences* mailarekin eta azkenik, tesia 1886an iraganik, irakasle izendatua izan zen 1890an. Bordeleko hiriak bultzaturik sortu baitzen orduan Frantziako Hego-Sartaldeko hizkuntzazko eta literaturazko katedra berria, Edouard Bourciez izan zen postu horretan lehen katedraduna eta kargu horretan egon zen lanetik gelditu arte, 1924an. Erretiraturik ere lanean segitu zuen eta adin handian hil zen, 1946an. Ikusten den bezala, Bourciez hiri bakar batean erauntsi zen lanean, beti Bordelen egonez, eta luzaz erauntsi ere artikulua frango eta liburu baliosak emanaz.

Erromanista baten formazioa bildu zuen lehenik eta gero sartu zen besteak beste gaskoin hizkuntzaren ikerketan. Bere tesi nagusia literaturari buruz eskaini zuen *Les mœurs polies et la littérature de cour sous Henri II* titulu pean. Bere bigarren tesia zorrotzago zen teknikaren aldetik, Merovingetiar aroko latinerazko joskera ikertu baitzuen, latinez naski, *De Praepositione AD casuali in latinatate aevi Mérovingici* gaiarekin. Oinarrizko jakitate hori bereturik, Bourciez hasi zen interesatzen bere garaiko dialektologo zenbaiten lanez, hala nola fonetika esperimentalaz Rousselotek eman aitzinamenduez, edo Gilliéronek *Atlas linguistique de la France* lan erraldoian bultzatu metodologia geolinguistikoaz.

Unibertsitateko lanak hatsarrean manatu zion frantses hizkuntzaren historia ikertzea lehenik, bere kurtsoa gai honen inguruan eman baitzuen urte askotan. Esku-liburu famatua argitaratu zuen 1899an, *Précis de phonétique française* deitzen dena eta 60 urtez bederen

Unibertsitateko ikasleek ezin utzizko liburutzat izan dutena Frantziako Fakultate guzietan. Liburu honetan badago puntu bat Bourciezen alderdi bat erakusten zuena: *oc* eta *oil* deitutako hizkuntzen arteko desberdintasunen zorroztera entseatu zen. Apurka-apurka eta arrakasta handiko liburuak izan zituen argitaralpenetan, datu soziolinguistikoak sartu zituen *oc* hizkuntzaren funtzioa murriztua izan zela erakutsi baitzuen: frantsesez «patois» deitzen den egoeran 15. mendetik goiti *oc* mintzairak nola sartuak ziren zehaztuz joan zen Bourciez. Bestela erranez, hizkuntz baten alderdi historikoak eta kontestualak kontuan hartzen zituen bere lanean.

Beste lan nagusi bat argitaratu zuen 1910ean: *Éléments de linguistique romane* esku-liburua. Hainbat argitaralpen izan zuen liburuak eta hartaz ere erran daiteke 1970 arte Frantziako ikasle guziek nahitaez hartarik edan dutela. Bi liburu hauekin fama handia izan zuen Edouard Bourciezek.

Bourciez eta gaskoin hizkuntza aipatu behar ditugu. Bordeleko Unibertsitateari Bourciez irakasleak prestigioa eman badio, on da jakitea ber garaian Gaskoinako eta gaskoieraren alderako mugimendu bat Bordele hirian sortu zela eta 19. mendeko bigarren partean intelektuaren artean bertako Aintzinate eta Erdi Aroko artxiboan ikertzeko jendea agertu zela. Historialariek, paleografoek argitaralpen frango aurkeztu zuten, bereziki Bordeleko herri-artxiboetako dokumentuak edo eta *Livre des Bouillons*, *Livre des Privilèges* eta *Livre des Coutumes* bezalakoak argitaratuz. Ikertzaileen artean J. Delpit (1808-1892), H. Barckhausen (1834-1914) eta oroz gainera Camille Jullian (1859-1933) aipatzekoak dira. Bourciez eta Jullian adiskide ziren, biak elkarrekin sartu berriak izanak baitziren Bordeleko Fakultatean. Bordeleko Herriko Etxeko diru-laguntza bati esker, lan monografiko bat argitaratu zen 1892an eta E. Bourciezek parte hartu zuen liburu honetan beste jakintsuekin batean, berak gaskoin hizkuntzaren ezaugarrien sintesi diakronikoa eskaini baitzuen. Uste izateko da garai hartan bururatu zitzaizkion Bordeleko Akademiako (Euskal Herria barne) hizkuntzen berri ematea: alabaina hiru urte berantago Erakusketa Unibertsala antolatu zuen Bordeleko Herriko Etxeak. Garai hartan ere Camille Jullian diruz lagundu zuen Bordeleko Herriko Etxeak bere *Histoire de Bordeaux* liburua atera zezan.

Ber denboran, Bordelen itzal handiko irakasleak bazituen Unibertsitateak. Bourciezek hartu zuen postuan, bera baino lehenago egon zen irakaslea Achille Luchaire izan zen: gaur ere ezagunak dira haren bi lan nagusiak, *Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*, 1879an argitaraturik, alde batetik, eta *Recueil de textes sur l'ancien dialecte gascon d'après des documents antérieurs au XIVème siècle, suivi d'un glossaire*, 1881ean argitaraturik, bestaldetik. Beste irakasle famatuak ere ezagutu zituen Bourciezek hala nola Emile Durkheim soziologoa, Bordeleko Unibertsitatean egon baitzen 1887tik 1902raino. Unibertsitateak zeukan orduko dinamismoaren lekuko da 1879an sortu *Annales de la Faculté des Lettres de Bordeaux* agerkaria, gero *Revue des Universités du Midi* bilakatu baitzen, hartarik sortu baitziren ondotik *Bulletin italien* eta *Bulletin hispanique* agerkariak (gaur egun bizirik dirautenak).

Ez zen beraz Edouard Bourciez bortuko lur mando batean erori bertako hizkuntzak ikergaitzat hartu nahi izan zituelarik. Gure solasetik kanpo egon gintezke Bourciezen gaskoin hizkuntzari buruzko lanak zehatz-mehatz azaltzen has bagintez. Erran dezagun bakarrik gaskoin hizkuntzaren ezaugarriak gero eta nabarmenagoak agertu zitzaizkiola: badakigu gaurko egunean ere puntu minbera dela okzitanerazaleen artean hizkuntza horren batasunaz mintzatzea, hain zuzen gaskoin hizkuntzak erakusten duen nortasun linguistiko indartsua haztatzeotan. Bourciezen aburuak sartu behar dira aro hartako testuinguruan eta ez oraingo

eztabaidak kontuan harturik. Oro har gaskoinaren ezaugarriak ez zituen kukutzen; izatekotz guziz azpimarratzen zituen. Adibidez gaskoinaren kontsonantismoak probentzeratik zinez bereizten zuela idatzi zuen 1910ean. Hargatik okzitaneraren batasuna ez zuen arbuiazen (Bourciez 1910). Gehiago dena eta Montaignek bezala, Gaskoinako bereko mugetan barna, biarnes hizkuntzaren berezitasunak aipatu zituen Bourciezek, eta zientifikoki hotz izanik ere, ez zuen gordetzen nolako balio estetikoa zuen mendi aldeko mintzaira honek. Horra 1934ko kongresu batean nola aipatzen zituen eta bere egiten Montaigneren lerro hauek : *Il y a au-dessus de nous, vers les montagnes, un gascon que je trouve singulièrement beau, bref, signifiant, et à la vérité un langage masle et militaire plus qu'aucun autre que j'entende, autant nerveus, puissant et pertinent comme le françois est gracieux, delicat et abondant. / Badago gure gainekaldean, mendi partean, eder, zuzen, esanguratsu iduritzen zaitan gaskoinera bat, eta zinez entzun dezakedan zoinahi hizkuntz baino mintzaira orotsago eta militarrago da, eta frantsesa grazios, amultsu eta joria den bezain zaintsu, indartsu eta egoki* (Montaigne, apud Bourciez 1936). Lerro hauen ematean, alabaina gure asmoa ez da estetikan sartzea baina erakustea nola sortzez gaskoin ez zen Bourciez batek ikertu, maitatu eta defenditu izan zuen bere begien aitzinean murriztera eta histera zoan historikoki hain azkar izan zen hizkuntza.

Horra zer zion 1934an:

*La Gascogne est un champ favorable aux investigations d'ordre linguistique. Pourquoi cela ? Parce que d'abord cette zone a des limites qui sont fort nettes ; parce qu'ensuite on peut y relever des traits originaux, vraiment spécifiques, et qui la distinguent des autres parlers de la France méridionale. / Gaskoin herria alor emankor da hizkuntza-mailako ikerketez den bezainbatean. Zergatik ote ? lehenik eremu horrek mugarriak oso garbiak dituelakotz, eta gero, hor altxa baititezke original eta zinez espeziako diren ezaugarriak, Frantzia hegoaldeko beste mintzaitetatik eremu hori bereizten baitute* (Bourciez 1936).

## 2.2. «Recueil des idiomes de la Région Gasconne» bilduma

Guk hemen publikatzen ditugun dokumentuak aipatu zituen egun hartan. Uste izateko da gaskoieraren zehazkiago ikertzeko behar zitezkeen tresnen eskasia deitoratzen zuela, alde batetik Millardetek Marsanen eta Albreten egin monografiak ez baizuen beste kiderik ondoko herrialdeetan, bestalde Gilliéronen *Atlas linguistique de la France*-ko sarea laxoegi zelakoan gaskoinaren fenomeno linguistikoen arteko isoglosen zehaztekotan. Oroit gaitezen Lalanneren monografiak ez zirela oraindik argitaratuak eta Jean Séguyk bultzatuko *Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne* beharleku gaitza (zeinetan X. Ravier, J. Allières et J. L. Fossat bezalako lankide argiak izanen baizituen) ez zela oraino sortua. Eta beraz, 1894an, duela 40 urte lehenago, berak bildutako gaskoierazko dokumentuak aipatu zituen orduan hauxe erranez:

Il y a bien encore un Recueil beaucoup plus vaste, puisqu'il comprend plus de 4000 communes : c'est celui que j'ai fait faire il y a 40 ans par des gens qui d'ailleurs n'étaient pas des linguistes de profession. Je n'insiste pas sur ce Recueil, j'aurais l'air de plaider pro domo: tout ce que j'ajoute, c'est qu'intelligemment consulté il peut rendre de bons services, et qu'il n'a pas toutes les déficiences qu'on lui a prêtées parfois a priori, sans le connaître. Seulement ici encore, le malheur c'est que les résultats de cette enquête forment 17 gros volumes, restés manuscrits, et qui ne sont guère à la portée des travailleurs.

Ba dukegu oraino Bilduma bat, askoz zabalago, ezen 4000 herri baino gehiago zerratzen baititu: hori da nihauk duela 40 urte eginarazi niena, bestalde ofizioz hizkuntzalari ez ziren jende zenbaiti. Bilduma hori ez nuke sobera goratu nahi, iduri baitluke *pro domo* baizik ez naizela mintzatzen; gehitzen

dudana da, zerbitzu ona eman dezakeela baldin eta argiki erabiltzen balinbada, eta zenbait aldi haren mamia ezagutu gabetarik ere *a priori* egotziak izan zaizkioten enegu guziak ez dituela. Salburik, hemen ere tamalez 17 liburuki loditan sartuak dira inkesta horren emaitzak, eskuz baizik idatzirik gelditu ez direnak, eta langileen peskizan ez direnak (Bourciez 1936).

Beti ere, Bourciez-ri esker, eta Bordeleko Akademiako lurretako mintzairen lekukotasuna bildu nahi zuelakotz dugu hemen aurkezten osatu zuen *Bilduma*-ko euskarazko partea. Segur aski eta gorago erran bezala, gaskoina bi ardatzen arabera ikertu gogo zuen. Alde batetik ardatz diakronikoa, bestetik ardatz sinkronikoa. Diakroniaren ikusmoldeetik eta aipatu dugun Bordeleko mugimendu intelektualari esker, gaskoieraren aditza ikertu zuen lehenik Bordeleko eta Girondoko artxiboetako dokumentuak erabiliz (Bourciez 1890, 1892, 1899). Sinkroniaren aldetik, uste izateko da 1895-ko erakusketa unibertsala aitzakitzat hartu zuela Bourciezek bilketa erraldoiaren egiteko. Ondoko urteetan bilketa hori erabiliko zuen lan geolinguistikoen aurkezteko: adibidez Landesetako «gaskoiera beltza» deitutako aldakiko eremua zehaztu zuen (Bourciez 1897).

Funtsean 1894an Bourciezek *Haur prodigoa* parabolako 4.444 bertsio lortu zuen (haien artean euskarazkoak). Hezkuntz Nazionaleko zerbitzuen laguntza bildu zuen bere xederako eta Akademiako inspekturren bitartez Bordeleko Akademiako errient guziek erantzuna eman zioten. Eta denak inspekturren erantzun ematera behartuak izan ziren, haiek igorri paperetan emana den Pabeko zigilua lekuko, segur aski dokumentu bakoitza bide hierarkikotik igan baitzen, erran nahi baita departamenduko inspektzioaren bitartez. Ez zen hor errient bolondresik edo nahiantik izan. Denek zuten erantzun behar, *nahi ala ez*, parabolako haur prodigoaren aitak seme zaharrarenari erraten dion bezala. Guretako ondorio gaitza izan du horrek: herririk ez da izan erantzunik fornitu ez duenik. Errient bakoitzari Bourciezek parabolako frantsesezko testua helarazi zion eta errient bakoitzaren gain izan zen izendaturik zen herriko mintzairara itzultzea edo itzularaztea. Bilketa horri esker, Bourciezek sare hertsia hedatu zuen herrialde handi batean eta pentsatzen zuen objektu linguistiko asko bildurik egonen zela kopuru handiko bertsio horietan. Eta bidenabar Bourciezen gaskoieraren aldeko kezka sinkroniko hori izan da euskararen probetxu, guk bilduma erraldoi hartatik parte ttipi bat baizik baliatzen ez dugularik.

Errient bakoitzak zer egin ote zuen lan horren betetzeko? Zuzen ez dakigu, baina oro har, emandako lana seriooki egin zutela erran dezakegu. Seriooki, ez beti errex eta ez beti artez, partikulazki Euskal Herrian. Igorria izan zitzaizen testua ez zen arras Ebanjeliokoa bera eta ez zezaketen jadanik egindako euskarazko itzulpenik balia. Errientak euskara bazekiularik, segur aski bera izendaturik zen herriko jende bati galdegin ziokeen nola itzul bertako euskaraz. Testu zenbaiten komentarioaren arabera, herrian euskarari buruz aditutzat hartua zen norbaitengana joan zen errientik izan zen. Gutitan gertatu zen errientak bera izendatua zen herriko euskara ongi ezagutzea, hala nola bere herrian izendatua zen errientak, eta harek ez zukeen hainbeste kezkarik ukan erantzuteko, alfabetatua zen ber. Besterik zen errientak euskaraz mikorik ez zekiularik. Noren laguntza izan zuten gehienetan ez dute erraten. Halere ikus daiteke laguntzailearen izena ematen dutela kasu batzuetan. Adibidez erraten du Azkarateko errientak, Larroque izenekoak, itzulpena Larratapé deitu herriko etxekojaunarekin egin duela. Donibane-Garazin, Esprabens errientak itzulpena bi aldiz ematen du, lehenik bere izenaz firmaturik eta bigarrena herriko kontseilari den Haranburu jaunaren izena emanez.

Gutitan irakurtzen dira bilduman itzulpenaren egiteko moldeaz Ainhize-Monjeloseko errientak eman xehetasunak. Horra zer dioen:



J'ai traduit d'abord le morceau moi-même. Ensuite j'ai lu la traduction quatre fois devant plusieurs personnes de la commune, en la corrigeant chaque fois suivant leurs observations. Enfin je l'ai lue à une personne âgée n'ayant jamais quitté la commune et réputée comme parlant très bien le basque ; celle-ci n'a plus trouvé rien à changer. J'ai donc la certitude que le basque que j'ai écrit est bien celui qu'on parle dans la localité.

Testua nihauk itzuli dut lehenik. Gero itzulpena lau aldiz irakurri dut herriko jende zenbaiten aitzinean, egiten zizkidaten oharren arabera zuzenketak ematen nituelarik. Azkenik, herritik sekulan joan ez den eta euskara oso ongi ematen duelako fama duen jende zahar bati irakurri diot; hark deus kanbiatzekorik ez du ediren. Beraz segur eta fida naiz idatzi dudana euskara hori herrian mintzatzen den hura bera dela.

Baziren hain ximenki ari izan ez ziren errientak. Batzuetan errientak jokatu zuen etxeko lanaren egitera behartua den ikasle kokinak bezala: bestek egin testua kopiatuz osoki. Horrela esplikatzeko da adibidez 1268 (Donapaleu) eta 1269 (Donapaleu ere) testuak kasik berberak izatea, lehena Maigret errientak izenpeturik eta bestea Donapaleuko Aguer-Achal jaunak. Xehetasunetan sartuz geroz, bi testuak elkarretik bereizten dituzten ñabardurak altxatuko ditu irakurleak (*mithila/muthila, pounitu/punitu, vesta/vestat, edo/eddo* etab.) baina ohartzen da luma bakar batek eginak direla bi testuak, ezaugarri endemikoak eta guzi: *hartiko* (ez *\*hartuko*), *ezari* (ez *\*ezarri*). Zernahi gisaz, makur handirik ez du ematen bikoizteta horrek bi testuak Donapaleuren kondu ekarriak direlaketz. Piesago da ondoko kasua, 1303. (Bunuze) eta 1305. (Hozta) herrietako testuetan, jadanik beste nonbait erakutsi genuen bezala (Videgain, 1989, 35-38). Eskola Normaleko kideen solidaritateak edo elkartasunak pusaturik, Bunuzeko Sagaspe errientak bere testua prestatu bide zion Hoztako Loustau errientari, ikusten baita azken hau (gaskoina ote eta ez euskaldun?) izan zela Sagasperen testua kopiatu zuena, batzuetan oker kopiatu ere, zer kopiatzen zuen ez zakikeelaketz: testuko azken partean (nekadura lagun?) *lehin* idatzi du, eta ez *lehen, ehaztin* eta ez *ehaztun, bezta* eta ez *besta* adibidez. Hemen ere makurra ez da handia Bunuze eta Hozta bi herriak elkarren hurren izanki. Baina beste kopiatze nabarmenik ez dugu ikusi bilduman gaindi (so egin halere hurrenago aipatu 1273, 1274 eta 1275 testuei), salbu 1210 eta 1211 testuak, biak Uztaritzekoak eta biak berak.

Badira bi bertsiotzat eskaintzen duten herriak (gaineneko kasuez gain) hala nola Izurak (1311 eta 1312) adibidez. Hor nolazbait diakronia sartu nahi izan zukeen errientatek, alde batetik postuan zen Jauréguy izeneko errientatek bertsiotzat «normala» sartu baitzuen, eta bestalde 1312. dokumentua, B. Primorena deitutako errientatek egin. Bideanbar erran dezagun Primorena hori izan zitekeela Azkuek bere kantutegian aipatzen duen Bertrand Primorena Amikuzeko berri-emailea (Azkue, 1922). Beti ere, Bourciezen bildumaren arabera, Primorena hori ez zen Amikuztarra baizik eta Izuratar. Egia da Domintxainen errientatek zela eta haren firma bi tokitan agertzen da bilduman. Ber egunean, hots 1894ko abenduak 31an, bi bertsiotzat sinatu zuen, bata Domintxainekoa (1283) eta beraz bestea, Izurako bigarren bertsiotzat (1312), Izuran sortua zela berak idatzi baitzuen testua eman aitzin: *traduction en Bas-Navarrais d'autrefois; idiome d'Ostabat, où le traducteur est né*. Haren testua zertan den Jauréguyrena baino lehenagokoa barnagotik ikusteko ez da hemen lekurik. Ageri da adibidez alokutiboa guziz kendua zuela bere Izurako testutik (Domintxaineko bertsiotzat utzi du) eta lexikotan hitz "garbiagoak" edo zehatzagoak bilatu zituela. Orogen buru iduri luke testua Primorenak eraiki zuela Jauréguyren testua oinarritzat hartuz. Horra adibidez batzuk, zeinetan lehen hitza Jauréguyrena baita eta bigarrena Primorenarena: *sosa / dihuru; maleous / dohacabe, pounitia / gaztigatia, vesta / barneco, çapata / oski, chakourekina / ihiz'horekin, youramentouka / arneguz, erepostou eman / ihardesten, kontentamendouz / bozcarioz, alegueratou / bozcariatu, hatzimana / idiena* (= ediren). Ikusten den bezala, *Bas-Navarrais d'autrefois* edo lehenagoko euskara aipatzen zuelarik, nolazbait adierazi nahi zuen Primorenak (ala

Jauréguyk?) lehenago denboretan hobeki moldatutako euskara erabiltzen bide zela bere denboran baino.

Iholdin ere badaude bi testu, 1299a eta 1300a. Lehena Amigarat deitu errientak egina da, bigarrena aldiz beste norbaitek egina eta horrela dio testuak: *Parabole de l'Enfant prodigue racontée à la veillée, en basque, par un brave vieillard, ménétrier*, erran nahi baita parabola hori soinu-jole xahar batek hats batez kontatu zuela. Eta egia da ez zuela fidelki itzuli, eta edergailu gisa edo funtzio fatikoa indartzeko elementu zenbait sartu zituela delako soinu-jole zaharrak, itzulpen hutsa baino luzeagoko testu interesgarria eskaintzen baitigu. Harek asmatu dira besteak beste, *béré jiten zitzacona* egitura, genitiboa erabiltzen baitu prolatiboaren adierazteko (*beretako, beretzat*), edo eta *ez baizion sinhets* aditza \**iron* aditza (*ziroen*) baliatzen baitu, eta *arno* hitza bakarrik itzuli gabe zerrenda luzatzea *mahats arno, sagar arno, pitar eta minata* aipatuz. Itzulpen xoil izan gabe, bertsio egokitua egin zuen gure soinulariak eta bildumari neholako makurrik ez dio ekartzen.

Beste errepikapenak ere agertzen dira baina erran daiteke azalekoak direla, desberdintasun ortografikoak direlaketz. Arberatze-Zilhekoko kasuan ere bi testu agertzen dira, bata 1273a eta bestea 1274a, biak Menvielle errientak firmaturik. Testu batetik bestera kanbiatzen den gauza bakarra ortografia da. Lehenbiziko testuan (1273) frantsesaren arabera ari da *orthographe et sons français autant que possible* jarraituz eta horrela hasten da: *Guiçon batec etcitien bi sémé bécic*. Bigarren testuan (1274) beste arau bat jarraitzen du: *orthographe et sons propres à la langue Basque*. Horrela hasten da: *Gizon batec etzitien bi seme bezic*. Gertatzen da ondoko testuan, 1275an, Arboti-Zohotakoan berriz agertzen dela euskararen arabera egin 1274 testuaren kopia. Arboti-Zohotako errientak M Goyheneix zuen izena eta uste izateko da testua auzoko herrian bildu zuela Menvielleren eskutik. Ahatik hitz bat aldatu du tituluaren berean. Menviellek Arberatze-Zilhekoan *prodigoa* erabiltzen duen tokian, Goyheneixek *igorlia* ematen du Arboti-Zohotakoan.

Ortografia dela eta, 1278. eta 1279 testuetan, Behauzeko errientak, Istebot izenekoak, bi itzulpen ematen du, lehena frantses alfabetuaren arabera eta bigarrena beste alfabetu baten arabera, zeinetan «*chaque son est représenté par un signe unique*», erran nahi baita *soinu bakoitza zeinu bakar batez ordezkaturia baita*. Baina ortografiaren kanpo, bi testuak elkarren kopia dira.

Irakurlea ohartuko den bezala, itzulpenen ondotik, errientak eman du anitzetan komentario bat. Hor gehienetan ageri den arrangura nagusia ortografiarena da eta ez hainbeste joskeraren edo hitz-ordenaren kezka. Gutitan dituzte aipatzen itzulpengintzak berak eman oztupoak: askotan aldiz ortografiaren dudak. Erran gabe doa frantsesezko ortografia oinarritzat hartzeak ondorioz baduela. Hortik dator adibidez hainbeste testutan azentua markatua izatea *e* bokalaren gainean: *béré* idazten du errient askok, trema bat ere diptongoaren berri emateko: *ai̇ta*. Kontsonanteetan, txistukariak dira gehienik aipatzen dituztenak. Horra adibidez F. Lolou Etxebarreko errientak dioena: *Le s en basque, a deux sons distincts: le son sifflant, qui est représenté par s, et le son doux, correspondant au ç français, rendu par z*. Hitz berberak ematen ditu Hastoy Lexantzuko errientak, horrek adieraztera ematen duelarik elgar mintzatu zutela edo ber iturria izan zutela. Euskarazko «s» soinuaren ongi ahozkatzeko errientek ematen dituzten aholkuak ez dira guti eta ematen duten erredua ez zaio beti fonetikari jarraitzen. Horra zer dioten Arozeko errientak: *La lettre s a un son particulier qu'on obtient en appuyant le bout de la langue au palais ; ce son imite le sifflement de l'oeie en colère. [S letrak soinu berezia badauka eta haren kausitzeko mihi-punta bermatu behar da sabaiaren kontra: soinu horrek egiten du samurturik den antzararen*

*huxtua.*] Baina egiari zor zaio erraitea horrelako irudi ezezkorrak gutitan baizik ez direla agertzen bilduman: oro har, euskararen ortografiaren historiaren ikertzeko ekai interesgarri ematen dute hiru probintzietako errient horiek.

Guziz bereziak dira bestalde beste bi kasu, Anhauzekoa eta Ozazekoa. Anhauzeko testuak (1318) itzulpen harrigarria ematen du. Horra nola itzultzen duen lehen perpausa: *Un homme n'avait que deux fils*. Horrela dio haren testuak: *Batec guizon et zitin baicic bi seme*. Ikusten da frantsesezko perpausa nolazbait euskaraz itzuli duela baina frantsesezko ordena batere hunki gabe. Gauza bera ageri da Ozazen 1357 testuan, eta hauxe dakar itzulpenak: *Bat guizon ess sian baicic bi sémé. Haboro gatinac éran sian béré aitari*. Errientek ez dute erraiten zergatik horrela lotu diren lanari.

Arrisku zen ere errientak kontuan hartzea ez herriko euskara baina beste nonbaitekoa, hala nola *koine* batetik hartutako formak, edo prestigioko formak, adibidez Lapurdikoak. Egia erraiteko ez da anitzetan gertatu, baina herri batean, Pagolan hain zuzen, han zegoen Abadie errientak eman testuak ez du Pagolako euskararen urrinik, nahiz ez den halere Lapurdiko euskaraz moldatua: *zion, ilhargia, unhatzen, dezaion* formek testu endemikoa ez dela salatzen dute. Alde hortatik Pagolako testua ez da batere fidagarri eta geolinguistikaren aldetik beste testuak baino askoz ahulagoa da. Beste herri anitzetako bertsioetan ere Lapurdiko forma batzuk nagusitu zirela ikusten da, bereziki aditzean eta oro har morfologian. Amenduzen *neure* eta *haiz, naiz, diot* formak ez dira bertakoak baina ber testuan agertzen dira ere *niz, zakon* edo lexiko mailan Amikuzeko den *guitac* ('ahateak') bezalako hitzak. Guziz normala da horrelako kontaminaziorik agertzea eta Bourciezek baliatu metodologiatik ez da baitezpada etortzen, beste inkestagintza motetan ere *artefact* anitzen eragina biltzen delarik.

Hitz bat testuen itxuraz. E. Bourciezek bildu testua errient bakoitzak eskuz idatzia igorri zuen, iduriz letrak eta izkiriatzeko moldeak ahal bezain ongi apainduz: garai hartako esku-idazkeren erakusketa ederra ikus daiteke bilduma honetan eta liburu honekin batera datorren CD-ROM-ak testu guzien facsimile bat irakurleari eskaintzen dio. Gaurko egunean boligrafoz (edo ordenagailuz) idazten ari garenok mirets genezake, adibidez, Arrangoitzeko, Donibane-Lohizuneko, Ustaritzeko, Haltsuko, Ainhize-Mongeloseko, Atharratzeko, Larraineko, Barkoxeko eta beste leku anitzetako kaligrafia zaindua.

Bilduma departamenduka eta kantonamenduka antolatu zuen Bourciezek orduko sistima administratiboaren arabera eta Basses-Pyrénées-etako departamenduko herriak jarraian eman zituen, guti edo aski itsas-hegitik ekialdera joanez. Baionako arrondizamenduan sartzen dira Baionako, Donibane-Lohizuneko, Ustaritzeko, Hazparneko, Ezpeletako, Bastidako eta Bidaxuneko kantonamenduak. Mauleko arrondizamenduan sartzen dira Mauleko, Donapaleuko, Donibane-Garaziko, Iholdiko, Baigorriko eta Atarratzeko kantonamenduak. Ondorioz, Zuberoako herri guziak ez dira denak elkarren segidan ematen, Mauleko eta Atarratzeko kantonamenduen artean (frantsesez Mauléon eta Tardets-Sorholuz) beste Baxenafarroko kantonamenduak baitaude. Herri bakoitzeko bertsioak bere zenbakia badu, Bourciezek berak emanik.

Hemen euskarazko testuak baizik ez ditugu argitaratzen eta badira administratiboki Euskal Herrikoak diren herriak gure lanean agertzen ez direnak, gaskoierazko bertsiorik baizik ez baitzuten bildu errientek, hala nola Baionan, Biarritzen edo Basusarrin. Aldiz Oloroneko kantonamenduan dagoen Eskiulan euskarazko testua bildu zuen herriko semea zen Urrutigoiti errientak. Artetik erraiteko, errient horrek euskara laket eta haren kahierak baliatu zituen Haritschelhar jaunak Etxahunez obratu tesi ezagunean. Guhauk *Euskal Herriko Atlas*

*Linguistikoaren* inkesten egiten ari ginelarik, Urrutigoitiren postua hartu zuen Orbiscay errient-ohiaren ezagutzeko parada izan genuen eta Eskiulako lekuko argia eta amultsua izan genuen. Biek, Urrutigoitik nola Orbiscayk, errient-karrera guzia lehen egunetik azken egunera beren herrian eraman zuten beste nehora joan gabe, erran nahi baita kasik ehun urteko katea osatu dutela bi gizonak, estaduko funtzionario eta euskararen defentsatzaile leial egonez. 1985eko Eguberri egunean zendu zen Orbiscay jauna gure Zuberoako azken lekukoa izan da *ailedi* edo *aileza* bezalako formak eman dizkiguna.

Dagoen bezala, uste dugu *Bilduma* honek berri interesgarririk ematen duen Lapurdiko, Baxenafarroko eta Zuberoako euskarari buruz. Orain arte, ez zen errex testu horien eskuratzea eta irakurtzea. J. Allières lehena izan zen lan pollita egin zuena bilduma honetatik mapa komentatuak osatu zituelarik (Allières 1978). Haren ondotik beste mapa andana bat egin gogo dugu Parabolaren testuak nahiko item emaiten baitu lexikoaren, morfologiaren eta joskeraren aldetik beste lan baten obratzeko datozen hilabeteetan.

## Bibliografia

- ALLIERES, J., 1978: «Petit Atlas linguistique basque français Bourciez 1, (20 cartes commentées)», *Fontes Linguae Vasconum*, 27, 353-386.
- AZKUE, R.M., 1922: *Cancionero popular vasco*, 2 liburuki, Barcelona, Boileau & Bernusconi.
- BOURCIEZ, E., 1886b: *De praepositione AD casuali in laitinantate aevi Mérovingici*, Paris, Klincksiek.
- BOURCIEZ, E., 1886a: *Les mœurs polies et la littérature de cour sous Henri II*, Paris, Hachette.
- BOURCIEZ, E., 1889: *Précis de phonétique française*, Paris.
- BOURCIEZ, E., 1890: «La conjugaison gasconne d'après les documents bordelais», *Annales de la Faculté des Lettres de Bordeaux*, II-III, 196-225.
- BOURCIEZ, E., 1895: «Introduction au Recueil des Idiomes de la Région Gasconne», *Revue des Pyrénées France méridionale*, 321-324.
- BOURCIEZ, E., 1897: «Contribution à l'étude du son æ landais», *Actes du Congrès international des langues romanes tenu à Bordeaux (5-10 août 1895)*, Bordeaux, Féret, 93-104.
- BOURCIEZ, E., 1936: «Le domaine gascon», in Actes du 4<sup>ème</sup> Congrès international de linguistique romane (Bordeaux 28 mai 1934), *Revue des langues Romanes*, XII, 1-9.
- BOURCIEZ, E., 1910: *Éléments de linguistique romane*, Paris.
- LUCHAIRE, A., 1879: *Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*, Paris, Maisonneuve.
- LUCHAIRE, A., 1881: *Recueil de textes de l'ancien dialecte gascon d'après des documents antérieurs au XIVe siècle*, Paris, Maisonneuve.
- VIAUT, A., 1995: «Bourciez et les études gasconnes», in *L'ethnologie à Bordeaux. Hommage à Pierre Métails*. Actes du colloque du 10 mars 1994, Département d'Anthropologie Sociale-Ethnologie / Centre d'Études et de Recherches Ethnologiques / Université de Bordeaux II, 109-128.
- VIDEGAIN, Ch., 1989: *Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Oztibarre. Contribution aux archives de l'oralité basque*, (doktoradutzako tesia: zuzend. J. Haritschelhar & J.L. Fossat), Université de Bordeaux III, ez argitaratua, 2178 or.

## 6. TESTUEN EGILE GISA AGERTZEN DIREN ERRIENTEN ZERRENDA

Abadie (1297-Pagola / Pagolle)  
Abadie, E. (1231-Lekorne / Mendionde)  
Aguer, L. (1354-Lexantzü-Zunharre / Lichans-Sunhar)  
Aguer-Achal, M. (1269-Donapaleu / Saint-Palais)  
Ahetz-Etcheber (1201-Donibane-Lohizune / Saint Jean-de-Luz)  
Ahetz-Etcheber, J. (1219-Ezpeleta / Espelette)  
Amigarat (1299-Iholdi / Iholdy)  
Amirin (1225-Sara / Sare)  
Arainty, B. (1302-Armendaritze / Armendarits)  
Arhanegoity, J. (1258-Garindaine / Garindein)  
Armagnague (1291-Lohitzüne / Lohitzun)  
Arostéguy, L. (1277-Arruta-Sarrikota / Arraute-Charritte)  
Arrambide (1230-Mehaine / Méharin)  
Ayphasorho (1233-Donamartiri / Saint-Martin)  
Barrenne, H. (1263-Mitikile / Moncayolle)  
Basterreix, J.L. (1276-Arüe / Aroue)  
Basterreix, S. (1261-Idauze-Mendi / Idaux-Mendy)  
Bégué (1196-Urketa / Urcuit)  
Beignatborde, M. (1330-Ainhize-Monjolose / Ainhice-Mongelos)  
Berdou (1320-Banka / Banca)  
Bertererêche, B. (1223-Itsasu / Itxassou)  
Biscay (1334-Zaro / Çaro)  
Bombet (1315-Baigorri / Saint-Etienne-de-Baïgorry)  
Bonnet (1205-Biriatu / Biriadou)  
Bordenave, J. (1265-Urdiñarbe / Ordiarp)  
Bousquet, M. (1204-Bidarte / Bidart)  
Carricaburu, A. (1224-Luhuso / Louhossoa)  
Carriquiry (1345-Atharratze / Tardets)  
Cazebonne, B. (1207-Getaria / Guéthary)  
Ceihéran, F. (1203-Azkaine / Ascain)  
Chimitz (1307-Irisarri / Irissarry)  
Choubar, J. (1208-Hendaia / Hendaye)  
Constantin (1341-Donazaharre / Saint-Jean-Le-Vieux)

Corthondo (1339-Lekunberri / Lecumberry)  
Cot, S. (1266-Arrokiaga / Roquiague)  
Coudure (1317-Aldude / Les Aldudes)  
Curutchet, Jean (1333-Buztintze-Hiriberri / Bustince-Iriberry)  
Daguerre, S. (1243-Bardoze / Bardos)  
Darré, L. (1217-Senpere / Saint-Pée-sur-Nivelle)  
Darritchon (1229-Makea / Macaye)  
Darritchon, M. (1342-Eihalarre / Saint-Michel)  
Davant, J. (1267-Bildoze / Viodos)  
Deluc, B. (1202-Donibane-Lohizune / Saint-Jean-de-Luz)  
Dibar, Jn. (1215-Jatsu / Jatxou)  
Duclos (1228-Lekuine / Bonloc)  
Duhalde (1314-Suhuskune / Suhescun)  
Duhalde, J. (1294-Oragarre / Orègue)  
Duleau (1344-Atharratze-Sorholüze / Tardets-Sorholus)  
Duleau (1350-Hauze / Haux)  
Duque, P. (1358-Santa-Grazi / Sainte-Engrâce)  
Elissagaray (1206-Ziburu / Ciboure)  
Elissagaray (1331-Arnegi/ Arnéguy)  
Elissagaray, A.L. (1251-Ainharbe / Ainharp)  
Elissagaray, G. (1332-Duzunaritze-Sarasketa / Bussunarits-Sarrasquette)  
Epherre-Iriart (1336-Izpura / Ispoure)  
Errecart, Jn (1256-Sohüta / Chéraute)  
Esprabens (1326-Donibane-Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port)  
Esprabens (Montorin) (1355-Ligi-Atherei / Licq-Athérey)  
Estéot, Dominique (1322-Irulegi / Irouléguay)  
Etchart (1308-Jutsi / Juxue)  
Etcheberrigaray (1222-Kanbo / Cambo)  
Etcheberry (1198-Arrangoitze / Arcangues)  
Etcheberry (1285-Gabadi / Gabat)  
Etchegoïnberry, P. (1238-Bastida / Labastide-Clairence)  
Etcheto (1324-Ortzaize / Ossès)  
Etcheverry (Bombet) (1316-Baigorri / Saint-Etienne-de-Baïgorry)  
Etcheverry, J.M. (1214-Haltsu / Halsou)

Etchevers, F. (1218-Milafanga / Villefranque)  
Fabre, Simon (1270-Aiziritze / Aicirits)  
Fourcade (1340-Mendibe / Mendive)  
Garat, A. (1259-Gotaine-Irabarne / Gotein-Libarrenx)  
Garby (1360-Iruri / Trois-Villes)  
Gastarriet (1349-Etxebarre / Etchebar)  
Gastellu (1304-Heleta / Hélette)  
Goyhénèche, J. (1262-Mendikota / Menditte)  
Goyheneix, M. (1275-Arboti-Zohota / Arbouet-Sussaute)  
Goytino (1250-Maule / Mauléon)  
Guichandut (1288-Ilharre / Ilharre)  
Guilliard/Angosse, M. (1227-Hazparne / Hasparren)  
Haramburu (1327-Donibane-Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port)  
Hargouet, Alfred (1194-Mugerre / Mouguerre)  
Hastoy, F. (1353-Lorraine / Larrau)  
Herrécarret (1359-Zalgize-Donztebe / Sauguis-Saint-Etienne)  
Hiriartborde (1295-Ostankoa / Orsanco)  
Hiribarren, P. (1232-Donostiri / Saint-Esteben)  
Hoquina-Urruty (1281-Bithiriñe / Beyrie-sur-Joyeuse)  
Ibargaray, J. (1301-Arhantsusi / Arhansus)  
Inchauspé, M. (1329-Aintzila / Aincille)  
Iriart (1352-Liginaga / Laguinge)  
Itebot, G. (1278-Behauze / Béguios)  
Itebot, G. (1279-Behauze / Béguios)  
Jarrié, M. (1306-Ibarrola / Ibarrolle)  
Jauréguiberry (1237-Beskoitze / Briscous)  
Jauréguy (1311-Izura / Ostabat)  
Jauréguy (1313-Donaixti-Ibarre / Saint-Just-Ibarre)  
Lalanne (1210-Uztaritze / Ustaritz)  
Landé (1335-Ezterenzubi / Estérençuby)  
Lapeyre (1298-Uharte-hiri / Uhart-Mixe)  
Laplume (1252-Ürrüstoi-Larrabile / Arrast-Larrebieu)  
Larre, Martin (1220-Ezpeleta / Espelette)  
Larreincy, C. (1272-Amorotze / Amorots)

Larroque (Larratape) (1319-Azkarate / Ascarat)  
Lartigau, N. (1292-Lukuze-Altzumarta / Luxe-Sumberraute)  
Laulhère (1286-Garruze / Garris)  
Lavie (1236-Aiherra / Ayherre)  
Lavie, A. (1257-Ündüreine / Espès-Undurein)  
Laxague, B. (1264-Muskildi / Musculdy)  
Lissague, J. (1221-Ainhoa / Ainhoa)  
Lolou (1348-Gamere-Zihiga / Camou-Cihigue)  
Longy, Jean-Pierre (1271-Amenduze / Amendeuix)  
Loustau, J. (1305-Hozta / Hosta)  
Maigret, F. (1268-Donapaleu / Saint-Palais)  
Malet, B. (1255-Sarrikotapea / Charritte-de-Bas)  
Marot, Jean-Baptiste (1212-Ahetze / Ahetze)  
Mendicouague (1346-Altzai / Alçay)  
Menvielle, B. (1273-Arberatze-Zilhekoa / Arbérats-Sillègue)  
Menvielle, B. (1274-Arberatze-Zilhekoa / Arbérats-Sillègue)  
Mourlane, J. (1318-Anhauze / Anhaux)  
Muguelar, B. (1284-Etxarri / Etcharry)  
Nébout, J. (1293-Martxuta / Masparraute)  
Nicibar (1357-Ozaze-Zühara / Ossas-Suhare)  
Noël, H. (1290-Larribarre / Larribar)  
Oilloquy (1328-Ahatsa-Altzieta-Bazkazane / Ahaxe-Alciette-Bascassan)  
Oxabide (1216-Larresoro / Larressore)  
Oyhesqui, J. (1343-Uharte Garazi / Uhart-Cize)  
Paguéguy, H. (1309-Landibarre / Lantabat)  
Payzan, Jn. (1213-Arbona / Arbonne)  
Pitrau (1282-Gamue-Zohazti / Camou-Suhast)  
Pouchouhitéguy, J. (1337-Jatsu / Jaxu)  
Prat (1338-Lakarra / Lacarre)  
Primorena, B. (1283-Domintxaine-Berroeta / Domezain-Berraute)  
Primorena, B. (1312-Izura / Ostabat)  
Puyade (1280-Behaskane-Laphizketa / Béhasque-Lapiste)  
Quihillalt (1351-Lakarri / Lacarry)  
Quihillalt, R. (1323-Lasa / Lasse)



Roquebert, Louis-Irénée (1321-Bidarrai / Bidarray)  
Sagaspe (1303-Bunuze / Bunus)  
Saint-Martin, Léon (1211-Uztaritze / Ustaritz)  
Sallaberry (1249-Maule / Mauléon)  
Sallaberry, L. (1310-Larزابale / Larceveau)  
Salles, P.P. (1253-Altzürükü / Aussurucq)  
Soubie F. (1193-Lehuntze / Lahonce)  
Soubie, A. (1209-Urruña / Urrugne)  
Tapie (1347-Aloze / Alos)  
Touan, C. (1254-Barkoxe / Barcus)  
Toulet. F. (1226-Zuraide / Souraïde)  
Uhalt, Joseph (1325-Urepel / Urepel)  
Urrutigoïty (1385-Eskiula / Esquiule)  
Vigneau, Joseph (1260-Ospitalepea / L'Hôpital-Saint-Blaise)  
XXX L'auteur (1300-Iholdi / Iholdy)

## L'Enfant Prodigue

1. Un homme n'avait que deux fils. Le plus jeune dit à son père : « Il est temps que je sois mon maître et que j'aie de l'argent. Il faut que je puisse m'en aller et que je voie du pays. Partagez votre bien, et donnez-moi ce que je dois avoir. – Oui, mon fils, dit le père : comme tu voudras. Tu es un méchant, et tu seras puni. » Puis ouvrant le tiroir, il partagea son bien, et en fit deux portions égales.

2. Peu de jours après, le mauvais fils s'en alla du village en faisant le fier, et sans dire adieu à personne. Il traversa beaucoup de landes, des bois, des rivières, et vint dans une grande ville, où il dépensa tout son argent. Au bout de quelques mois, il dut vendre ses hardes à une vieille femme et se louer pour être valet : on l'envoya aux champs pour y garder les ânes et les bœufs.

3. Alors il fut très malheureux. Il n'eut plus de lit pour dormir la nuit, ni de feu pour se chauffer quand il faisait froid. Il avait quelquefois si grand faim qu'il aurait bien mangé ces feuilles de chou et ces fruits pourris que mangent les porcs. Mais personne ne lui donnait rien.

4. Un soir, le ventre vide, il se laissa tomber sur un escabeau, regardant par la fenêtre les oiseaux qui volaient légèrement. Puis il vit paraître dans le ciel la lune et les étoiles et se dit en pleurant : Là-bas, la maison de mon père est pleine de domestiques qui ont du pain et du vin, des œufs et du fromage, tant qu'ils en veulent. Pendant ce temps, moi, je meurs de faim ici.

5. « Eh bien, je vais me lever, j'irai trouver mon père et lui dirai : Je fis un péché quand je voulus vous quitter. J'eus grand tort, et il faut que vous me punissiez, je le sais bien. Ne m'appellez plus votre fils, traitez-moi comme le dernier de vos valets. Je fus coupable, mais je languissais loin de vous. »

6. Le père était dans son jardin, finissant d'arroser ses fleurs : il visitait les pommiers et les raisins. Quand il vit venir sur le chemin son fils tout couvert de sueur et de poussière, traînant la jambe, il put à peine le croire. Il se demanda s'il fallait qu'il le punît ou qu'il lui pardonnât... Enfin, avec les larmes dans les yeux, il lui tendit les bras, et se jetant à son cou il lui donna un gros baiser.

7. Puis il fit asseoir son fils; il appela ses gens et ses voisins: « je veux l'aimer comme avant, le pauvre enfant, leur dit-il dès qu'ils furent rassemblés. Il a été assez puni: que personne maintenant ne lui fasse aucun reproche. Venez le voir; apportez-lui vite une jolie veste, mettez-lui un anneau au doigt et des souliers neufs aux pieds. Vous pourrez aussi prendre des coqs, des canards, et amener un veau bon à tuer: nous allons boire, manger ensemble et faire une grande fête. »

8. Les valets obéirent à leur maître et mirent une belle nappe sur la table. Au même moment, le fils aîné revenait de la chasse avec ses chiens : « Quel est donc ce bruit ? s'écria-t-il en jurant. Je crois que vous chantez ici; il n'est pas trop tôt que je revienne. Etes-vous devenu fou, mon père? »

9. « Non, mon fils, je ne le suis pas, lui répondit le vieillard. Si je fais cela, c'est que je suis plein de joie. Nous chantons et nous sommes heureux, car nous avons bien de quoi. Que tu le veuilles ou non, il faudra que tu chantes toi aussi et que tu te réjouisses avec nous, parce que ton frère qui était mort est revenu à la vie. C'est comme s'il venait de naître : hier, il était mort, aujourd'hui le voilà retrouvé. »